



MANUEL LEKUONA Saria
Premio MANUEL LEKUONA



**EUSKO
IKASKUNTZA**



**Jorge
Oteiza
Embil**



14

MANUEL LEKUONA Saria
Premio MANUEL LEKUONA



1996



ASMOZ TA JAKITEZ

EUSKO
IKASKUNTZA

Jorge
Oteiza
Embil

Egilea:

Autor: Pedro Manterola Armisen



Remigio Mendibururen brontzeko eskultura
Escultura en bronce de Remigio Mendiburu

MANTEROLA ARMISEN, Pedro

Jorge Oteiza Embil / Pedro Manterola Armisen; [itzulpena Luis Manterola]. - Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1996. - 88 p. : il.; 21 cm. - (Manuel Lekuona Saria = Premio Manuel Lekuona; 14). - Texto bilingüe en euskera y castellano. - Premio Manuel Lekuona 1996 ISBN: 84-89516-10-3

1. Oteiza Embil, Jorge - biografía 2. Bibliografía - Oteiza Embil, Jorge I. Eusko Ikaskuntza II. Serie III. Tit.

012

929 Oteiza Embil, Jorge

Hauen laguntzarekin: Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Nafarroako Gobernua, Eusko Jaurlaritzia.

EUSKO IKASKUNTZA - SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS


Miramar Jauregia - Miraconcha, 48 - 20007 Donostia

ISBN: 84-89516-10-3

Depósito Legal: S.S.-397-96

Michelena artes gráficas, s.l.

Datu biografikoak	7
Datos biográficos	35
Une gogoangarriak	59
Momentos memorables	59
Antología bibliográfica	81



Alaia ta argia, Itziar
argia ta alaia,
uraren grazia apalez jantzia,
Itziar uraren ahizpa bizkia,
zerbitzu, dohaia ura lez,
ura lez Itziar
geldika eskainiz bizia,
geldika lurrunduz,
barrenduz airean Itziar,
geldika, zeruan,
arima handia.



Biografia

- 1908** Orion sortzen da, Gipuzkoa (urria).
- 1914/1921** Batxilergo ikasketak egiten ditu Sagrado Corazón Ikastetxean.
- 1921** Nafarroako Lekarozen ikasten du.
- 1927** Madrilen bizi da. Arkitekturaz interesatzen da, baina arrazoi burokratikoengatik Medikuntzan matrikulatu behar du.
- 1928** Linotipista gisa lan egiten du ikasketak ordaindu ahal izateko. J. Epstein, Txaplin eta Alberto Sánchez-en eragina agertzen duten lehen eskulturak egiten ditu.
- 1929** Hidraulika eta isurkarien mekanikari buruzko liburu baten irakurketa, bai eta biokimikari buruzko beste batena ere, erabakigarriak gertatzen dira Oteizaren arte-bokazioan. Medikuntza alde batera uzten du karrerako hirugarren urtean eta Madrilgo Escuela de Artes y Oficios delakoan matrikulatzen da. Oso denbora gutxi iraungo du bertan.
- 1931** Lehen Saria biltzen du Gipuzkoako Artista Berrien IX. Lehiaketan, Donostia, *Adán y Eva*, $Tg S = E/A$ eskulturarekin. Kubismo eta surrealismoari buruzko zenbait informazio «Cahiers d'art» aldizkarian. Soldaduzkara joan behar eta (Melilla, 1931ko azaroa - 1932ko azaroa), bertan behera uzten du Parisera egiteko asmoa zuen bidaia.
- 1932** Ziegako egonaldia batean idatzitako ipuina ematen du argitara.
- 1933** Lehen Saria biltzen du Gipuzkoako Artista Berrien X. Lehiaketan, Donostia.
- 1934** Erakusketa Donostiako Kursaaan, Lekuona eta Balenciagarekin batera.

Agirre Lehendakariarekin harremanetan jartzen da, euskal artearen berpizkunderako kultur politikan parte hartzeko ahaleginean.

- 1935** Hego Amerikara doa Balenciaga pintorearekin. Bien erakusketa Witcomb aretoan, Buenos Aires. «Actualidad de la raza vasca en el movimiento artístico europeo» izenburuko hitzaldia, Buenos Aires eta Santiago de Chile. Bakarkako erakusketa Santiago de Chileko Arte Ederretako Akademian. Vicente Huidobrorekin harremanetan. «Encontrismo» txostena aurkezten du (adierazpen formalerako analisi morfologikoa). Matyla Ghyka-ren eta haren urrezko sekzioari buruzko liburuaren eragina. Azpikoz gorako piramidearen forma aukeratzen du adierazpen pertsonaltzat.
- 1936** Teatro politiko esperimentalaren sorrera, Santiago de Chile.
- 1937** Buenos Airesera itzultzen da. Espainiara itzultzeko asmoa.
- 1938** Ameriketara iritsi eta gero ezagutu zuen Itziar Karreñorekin ezkontzen da.
- 1940** Irudi etzanen saila egiten du, piramide etzanaren forman oinarriturik. Hutsunen irekidura.
- 1941** Escuela Nacional de Cerámica-ko irakaslea, Buenos Aires.
- 1942** Kolonbiako Gobernuak kontratatzen du zeramikaren irakaskuntza ofiziala antolatzeko.
- 1944** «Carta a los artistas de América. Sobre el arte nuevo en la posguerra» argitaratzen du «Revista de la Universidad de Popayán» izeneko aldizkarian (muralismo mexikarraren kritika, «Estética Objetiva» baten beharra, espazioaren hedatze funtzionala, denbora eta dimentsioa).
- 1946** Goya sortu zeneko bigarren mendeurrena dela eta, bi hitzaldi ematen ditu Bogotan: «Significación espacial desde El Greco a Goya y Picasso» eta «Paralelismo entre el arte y los estilos populares (la pintura, de Goya a Picasso, y la tauromaquia, de Romero a Manolete)».


«Grandeza y miseria de Zuloaga» ematen du argitara «América» aldizkarian.

- 1947** «Estética Objetiva y la investigación de la estatuaria megalítica americana» izenburuko txostena aurkezten du Quitoko Casa de Cultura-n.
Zeramikaren kimikari buruzko ikastaroa ematen du Trujillo-ko Unibertsitateko Ingeniaritza Eskolan, Peru.
«Génesis del Arte Nuevo» hitzaldi zikloa ematen du, arkeologia eta egungo artearen inguruan.
Trujillo-ko Unibertsitateko *Miembro de Honor de Investigaciones Científicas* izendatzen dute.
Hitzaldi bat ematen du Limako Unibertsitateko udako ikastaroetan:
«Una técnica de colores térreos sobre englobe blanco para los alfareros del Cuzco».
Hitzaldiak ematen ditu ANEn (Asociación Nacional de Escritores y Artistas).
Pintore, eskultore eta arkitekto multzo batek osaturiko «Espacio» talde esperimentalak.
Moore-ren obraren eragina; obra horren estatuarako hutsunearen izaera aztertzen du.
Buenos Airesera itzultzen da.
Aldiberekoari buruzko saioa, Hipólito Irigoyenen monumentua eraikitzeko eskultura lehiaketarako.
Hiru euskarri-punturen gaineko eskultura.
«Informe sobre mi escultura» argitaratzen du «Cabalgata» aldizkarian, Buenos Aires.
- 1948** Espainiara itzultzen da.
- 1949** Bilboko Iturrubide kalean bizitzen da.
Lehen Saria, Felipe IV.ari monumentua egiteko nazio mailako lehiaketan.
Madrilen Escuela Hispanoamericana izeneko egiteko proiektua (burutu gabe).
Elektrizitate bidezko portzelana enpresa bateko zuzendaritza teknikoa, Bilbo.
«Cinco plásticos vascos» erakusketa, Studio galeria, Bilbo.
Ateneo berriaren sorrera.
Artikuluak idatzi eta hitzaldiak ematen ditu.
Donostiako Arte Ederretako Eskolaren proiektua eta Zeramika Tailer autofinantzatuaren proiektua (baimenik gabe biak).

Aldian behingo lanak Industria Erakustazokarako.
«Salón de los Once» (Dau al Set, Miró, etab.) erakusketa, Biosca galeria, Madril.

- 1950** Arantzazuko Basilikarako estatua guztien esleipena lortzen du, hartarako deitu Lehiaketan.
«Cuatro Escultores Abstractos» (Ferrant, Ferreira, Serra eta Oteiza) erakusketa, Galerías Laietanas, Bartzelona; Studio galeria, Bilbo; eta Buchholz galeria, Madril.
Zenbait artista gazterekin batera Bilboko Arte eta Lanbide Eskola okupatzen du eta ondoren bertatik egozten dituzte. «Escuela Vasca» izendapena erabiltzen hasten da.
- 1951** Ohorezko Diploma Milango IX. Hirurtekoan, *Ensayo sobre lo simultáneo* eskulturagatik.
«Informe sobre la escultura contemporánea», Santanderreko Curso Internacional de Arte de la Universidad de Verano.
- 1952** «Interpretación Estética de la Estatuaria Megalítica Americana» argitaratzen du, C. H. Arg., Madril.
«Escultura Dinámica» gaiari buruzko hitzaldia Santanderreko Universidad Internacional de Verano-ko ikastaroetan.
Madrilgo Instituto de Estéticas Comparadas-erako proiektua. Taldeko erakusketa Xagra galerian, Madril.
Bere lehen estudioa muntatzen du Arantzazun.
«Renovación de la estructura en el arte actual» argitaratzen du
«Revista de Lekaroz»-en, Arantzazuko Basilikarako orientabide abstraktoaren inguruan agertu lehen mesfidantza-adierazpenen aurrean.
Preso Politiko Ezezagunaren Monumenturako Nazioarteko Lehiaketa, Londres (aukeraturiko espainiar bakarra).
- 1953** «Exposición de Arte Fantástico», Clan galeria, Madril.
- 1954** Arantzazuko Basilikarako lanak debekatzin dituzte; Apostoluen eskulturak errepidean abandonaturik geratzen dira.
«Androcanto y sigo (ballet de las piedras de los Apóstoles en la carretera)» liburua argitaratzen du.
Arkitektura Sari Nazionala biltzen du, Santiago Biderako kaperaren proiektuagatik, Oiza eta Romaní-rekin batera.
Valladolideko Domingotarren Elizako absiderako eskultura (Fisac-en eraikuntza, Vienako Erljiozko Arkitektura Lehiaketan saritua).

- 1955** «Arte Abstracto» erakusketa, Fernando Fe galeria, Madril.
Tarragonako lanbide unibertsitaterako erliebezko lanak.
Argi moduluak eta poliedroen irekidura harrien gaineko disko
tratamendu zuzenaren bidez.
- 1956** Madrilgo Instituto de Inseminación Artificial-eko aurrealderako erliebea.
Juan Huarte industrialaren laguntzaz, Madrilen eraikitzen ari diren
Nuevos Ministeriosetan muntatzen du bere estudioa.
Bere eskultura lanaren aldirik biziena eta sortzaileena. Sail
esperimentalak burutzen ditu, «Propósito Experimental» delakoa behin
betiko zehazten duen bitartean.
- 1957** Sao Pauloko IV. Biurtekoa, Brasil. Nazioarteko Eskultura Saria jasotzen
du. Morandi eta Ben Nicholson-ek bildu zituzten beste bi sariak.
29 eskultura aurkezten ditu, 10 familietan ordenatuak.
«Equipo 57» taldearekiko harremanak eta ondoko haustura.
Arteak integratzen dituzten taldeetan esku hartzen du artista
desberdinekin.
Espainiako Pabiloiaren muntaia Bruselako Nazioarteko Azokan (nazio
mailako lehiaketa, Corrales eta Molezún-ekin osaturiko taldean).
«Propósito Experimental 56-57» katalogoa argitaratzen du. Testu hori
aipatzerakoan, 1983ko apirilaren 20an, Santiago Amón-ek Bilboko Arte
Fakultatean «Década de los 50 y los 60 en España» izenburuko
hitzaldian honela zioen:
(...) antologietan agertzea merezi duen manifestu bakarra Jorge
Oteizak bere PROPOSITO EXPERIMENTAL hartan sinatu zuena da,
1956 eta 1957 artean Sao Paulo 1957 Biurtekorako idatzia (...) argitasun
harrigarrikoa. Hasierako parrafoa besterik ez dizuet irakurriko, hartatik zenbait gauza ateratzen baititut nik. *La estatua como desocupación activa del espacio por fusión de unidades formales livianas* izenburua ipini dio. Honela dio Oteizak: «Ensayé precisamente este tipo de liberación de la energía en la Estatua, por fusión de unidades formales livianas, esto es, dinámicas o abiertas, y no la desocupación física de una masa, un sólido o un orden ocupante, por rompimiento de su masa, sino el rompimiento de neutralidad del espacio libre a favor de la Estatua, o de un espacio bajo condiciones que la Estatua necesita librarle, pero siempre por un sistema lógico y creciente de formas elementales, de matrices intrínsecamente espaciales, capaces de conjugación». Eta gizakien arteko harremanetan gertatzen diren arrazoi absurduengatik, inoiz esan ez ditudan gauzak esango ditut orain: Oteizaren testu hau Tratado delakoaren oinarria da, Martin Heidegger-ek irakurri badu eta irakurri



ez badu ere, hori ez baitakit nik; baina ongi irakurriz gero, testu hori Martin Heidegger berak EL ARTE Y EL ESPACIO titulupean argitaratu eta beste euskaldun ospetsu batek, Eduardo Chillida, irudiztatu zuen saio bikain haren oinarria da.

- 1958** Nestor Basterretxearekin batera Irunen finkatzen dira. A. Donostiari monumentua Agiña mendian, Lesaka. «Ley de los Cambios para la Expresión» delakoaren definizioa. Konklusio esperimentera ekiten die. Erakusketa Washington-go Gres Gallery galerian. (Brancusi-k bere *Oiseau dans l'espace* delakoarekin 1928an izan zuen aduana-arazo bera jasaten du).
- 1959** «Blanco y Negro» erakusketa, Darro galerian, Madril; nazioarteko sariak lortu zituzten artistei omenaldia: Oteiza, Chillida, Tàpies. Saria lortzen du «Monumentalidad e integración de escultura con arquitectura y sobre la ciudad» nazioarteko lehiaketan, Puig arkitektoarekin, Montevideo, Uruguay. Eskultura iharduna alde batera uzten du.
- 1960** Erakusketa Basterretxearekin, Neblí galerian, Madril; eta Bilboko Illescas galerian. César Vallejori buruzko hitzaldiak, Lima, Peru. Hitzaldiak Montevideoko Arkitektura Eskolan, Uruguay. «La nueva pintura y la escultura en España» erakusketa, New Yorkeko Museum of Modern Art-ek antolatua (erakusketa ibiltaria EEBBetan eta Kanadan zehar). «El final del arte contemporáneo, razones por las que abandono la escultura» argitaratzen du.
- 1961** «Primera Exposición de Arte Actual», San Telmo Museoa, Donostia. «Estética de Acteón»erako lehen lanak, zine narratibaren inguruan. Juan Huartek «X Films» produkzio-etxea sortzen du Oteizak bere zine proiektuak gauzatzeko bidea izan dezan.
- 1963** «Quosque Tandem...! Ensayo de Interpretación del alma vasca» argitaratzen du, Auñamendi, Donostia. Donibane-Lohizunen egitekoa zen Ikerketa Estetiko Konparatuen Nazioarteko Institutua proiektua, Malraux-ekin (ukoa jasotzen du, bomba atomikoaren fabrikazioak eraginiko aurrekontu-murrizketak direla eta).

- 1964** Arantzazuko estatuei buruzko eztabaida berpizten da.
«Importancia del artista en la vida del pueblo vasco» hitzaldia ematen du, Gernika.
“Ideología y técnica para una ley de los Cambios en el Arte» txostena bidaltzen du Italian egiten den Arte Kritikaren XIII. Nazioarteko Kongresura.
Harremanak ditu Argan-ekin egin litekeen Estetika Konparatuen Institutu bat sortzeko.
- 1965** «El Arte como Escuela Política de tomas de conciencia» hitzaldia ematen du Bartzelonako unibertsitari euskaldunen aurrean.
Haurren Unibertsitate piloto baterako saioa Elorrión.
Euskal Artearen Herriko Unibertsitateko Laborategiak Kurasaaleko behebarruetarako.
Gasteizko Euskal Antropologia Estetikoaren Museorako proiektua.
«La Galería de Arte como Productora»rako planteamenduak.
Euskal Arte Kultura laguntzeko Diru Fondo bat sortzeko proiektua.
Hitzaldi-omenaldia Eduardo Chillidari.
- 1966** Espainiako Ministerio de Información-ek ez du «Ejercicios Espirituales en un túnel» liburua argitaratzeko baimena ematen.
Escuela Vasca-ko taldeak sortzen dira.
«GAUR» taldearen erakusketa, Barandiaran galeria, Donostia.
«GAUR» eta «EMEN» taldeen erakusketa Bilboko Museoa.
«GAUR», «EMEN» eta «ORAIN» taldeen erakusketa Gasteizko Museoa.
- 1967** Oteiza, Chillida, Palazuelo, Millares, Oiza, Fernández Alba eta Fullaondoren erakusketa HISAko lokaletan, Madril.
- 1968** Berrito hasten dira Arantzazuko obrak. Txabi Etxebarrietaren heriotzaren irudi lausoa erabakigarria gertatzen da horma gaineko Pietatea bere seme Hilarekin irudikatzen duen estatua molda dezan; garai hartan, ETAko buruzagi hura artista eta intelektualeei zuzenduriko manifestu bat prestatzen ari zen, eta Oteizari hartaz kontsultatzeko asmoa zuen.
«Estética del Huevo» argitaratzen du, *Oteiza, 1933-1968* liburuan.
- 1969** Debako Eskola sortzen du.
Erreteriko Foruen Plazaren urbanizazioan esku hartzen du.
Eskultura baten proiektua Xenpelarren omenaldirako.
Arantzazuko obra amaitzen da.

- 
- 1970** Lehen Saria Madrilgo Colón Plaza urbanizatzeko Lehiaketan (talde lanean), egin gabe.
- 1972** Oteizak berriro ekiten dio bururatu gabe gelditu zen eskultore lanaren parteari. «Laboratorio de tizas» delakoa lantzen jarraitzen du, familia esperimetal batzuk osatzen ditu eta ereduatariko batzuk behin betiko materialetara pasatzen ditu.
- 1973** Arantzazu saileko bozetoak urtzen dira Madrilén.
«Cinco escultores vascos» erakusketa, Skira galeria, Madril.
- 1974** Erakusketa Txantxangorri galerian, Hondarrabia.
- 1975** Madrilgo Edificio Beatriz-erako eskultura esleitzen zaio, lehiaketa mugatuan.
«Pequeñas esculturas de grandes escultores» erakusketa, Granada.
«Escultura actual en el País Vasco» erakusketa, Hondarrabia.
- 1976** Veneziako Biurtekoan esku hartzen du.
«Carta al escultor navarro» argitaratzen du, Iruñea.
«Homenaje a Calder» erakusketa, Skira galeria, Madril.
- 1977** *Odiseo* izeneko eskultura ezartzen dute Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialean, Donostia.
- 1978** Pelay Orozkoren *Oteiza, su vida, su obra, su pensamiento, su palabra* liburua argitaratzen da.
Bilboko Arte Ederretako Fakultatea hartzen dute; zuzendaritza aldatzea eta zenbait artista euskaldunek irakasle gisa esku hartzea lortzen dute.
- 1980** «Sonemática vasca y mitos» argitaratzen du «ERE» aldizkarian.
«Para un Ministerio Autónomo de Arte Vasco» organigrama argitaratzen du «DEIA» egunkarian.
- 1983** *Ejercicios Espirituales en un túnel* liburua argitaratzen du, Hordago Arg., Donostia.
- 1984** «Euzkadi» Saria jasotzen du.
- 1985** Arte Ederretarako Domina jasotzen du Espainiako Kultura Ministeriotik.
Teomaquia o luchas con Dios poema saila moldatzen hasten da.
Ametzagañako hilerri proiektua, Donostia.

- 1986** «Qu'est-ce que la sculpture moderne?, 1900-1970» erakustokia, Centre Georges Pompidou, Paris.
- 1987** «Cinco siglos de arte español. El siglo de Picasso» erakusketa», Musée d'Art Moderne de la Ville de Paris, Espainiako Kultura Ministerioak antolatua.
- 1988** «JORGE OTEIZA. PROPOSITO EXPERIMENTAL» erakusketa antologikoa, Fundación Caja de Pensiones-ek antolatua. Fundación Caja de Pensiones-ko Erakusketa Aretoa, Madril; Bilboko Arte Ederretako Museoa, Bilbo; Centre Cultural de la Fundació Caixa de Pensions, Bartzelona. (Biografia honetako lehen lau orriak *Oteiza Propósito experimental* liburutik atera dira. Fotokopiaturik banatu ziren) "Príncipe de Asturias" Arte Saria jasotzen du. *Cartas al Príncipe* argitaratzen du.
- 1989** Alhondigarako proiektua. Central Cultural (Kuboa), Saenz de Oiza eta J. Daniel Fullaondo arkitektoekin batera.
- 1991** Itziar Karreño Etxeandia bere emaztea, hiltzen.
- 1992** *ITZIAR elegía y otros poemas* argitaratzen du Nafarroari egiten dio bere obra eta dokumentuen emaitza Altzuzan Fundazio-Museoa sortzeko. Nafarroako Urrezko Domina jasotzen du.
- 1993** *Quosque tandem* liburuaren 30. urtemuga. 5. argitaraldia, *Prólogo a este libro ya inútil en cultura vasca traicionada* hitzaurreaz hornitua.
- 1995** *Estética del huevo. Huevo y laberinto. Mentalidad vasca y laberinto* argitaratzen du J. Daniel Fullaondo arkitektoaren oroimenez eta omenez. *Nociones para una filología vasca de nuestro preindoeuropeo* liburuaren Lehen partea argitaratzen du eta Bigarrena prestatzeko lanean dihardu.




E

z dut gogoan nolatan ezagutu nuen Oteiza pertsonalki. Hirurogeigarren urteetako hasieran izan beharko zuen. 1957tik, urte hartan irabazi baitzuen Sao Pauloko IV. Biurteko Nazioarteko Eskultura Saria, eta are lehenagotik ere artista ospetsua zen (ohizko zentzuan ez bada ere). Garai haietan, Oteizaren inguruko berriak, prentsaren bidetik eta zenbait lagunenganik zetozela, arreta bereziz hartzen genituen gazte askok. Haren izena eskandalu zalapartatsuetan nahasia agertzen zen ia beti, eta haren ahotsa era garbiz aditzen genuen, garra bereziz lagundua beti ere.

Gogoan ditut eta guztiz bizirik, ordea, gure lehen harremanetako eszena batzuk. Halaber, zehaztasun harrigarriaz oroitzen ditut haren imintzioak, haren gartsutasuna eta are, uste dudanez, xehe-xehe errepika nitzakeen orain haren hitzetako batzuk, bai eta haiek biltzen zuten zentzua, agerikoa eta misteriozua aldi berean. Orduan jadanik ongi ohartua zen, batez ere gazteen artean, eragiten zuen miresmenaz, eta inoiz ez zion, alfonbra saltzailearen gisa, bere nortasun paradoxiko, irudimentsu eta guztiz apartaren berezitasunak gure begien aurrean zabaltzeko tentazioari buru egiten. Agerikoa zenez, bere burua modu nabarmenez erakustea guztiz gogokoa zuen, baina bagenekien baita, haren solaskideen interesa, nolanhikoa zelarik ere, benetako arreta eta interesaz hartzen zuela kontuan.

Urteak igaro eta, Altuzan, larunbatero eta goiz-goizik, haren etxeraraino igotzen nintzen ni eguneko prentsa aldean neramala. Itziarrek kafea prestatzen zigun eta haren langelako ardura handiko desordena hartan, beti papera eta lapitza esku artean zituela, orduak ematen genituen gizakiei doazkien gauzak baino areago jainkoei doazkienak mintzagai. Ezin ezabatuzko oroitzapena dut goizaldi haietaz.

Ordoko idazkian letra etzanez ematen diren hitzak Oteizarenak dira. Gehienak berak argitaratuak dira, edota adiskideek eta haren obraren ikastunek barreiatuak.




Jorge Oteizaren pasioa

Oteiza Orion jaio zen 1908an. *Nik Donostian sortu behar nuen, Okendo 11*, dio Pelay Orozcoren liburuan, *baina amaren aldeko aiton-amonak Orion bizi ziren, horregatik jaio nintzen Orion*.

Haur denborako lehen esperientzia ahaztezin haiek, familiarekin eta beste haurrekin zituen harremanetatik sorturiko haiek, eragin erabakigarria izan zuten Oteizak arteari buruz izango zuen pentsamenduan. Hutsaren eraikuntza, babesgune gisa, larriminaren eta heriotzaren sendabide gisa, sakratua beraz; pentsamendua eta obra huts horren inguruan moldatuz joango dira, eta bai pentsamenduak eta bai obrak erreferentzia baliotsuak bilduko dituzte urte horiei dagozkien oroipenetako zirrara bizienetan. Zenbait haurrez gogoratzen naiz, dio, Orioko hiltegiko atean, zaku batetik katu jaio berri batzuk atera eta, buztanetik heldurik, nola botatzen zituzten paretaren kontra barre-algaraka. Esan liteke, agian sorretatik datozelako, “naturalak” direlako, gauza gutxi dagoela haurren ankerkeria erugabea edo herri ohitura askoren besta giroko aberekeria bezain izugarri direnik. Batzuek eta besteek sorrarazten dute beldurraren zaporea, heriotzaren jakitate goiztarrean baino gehiago, besteri hutsean eman eta besterengandik ezinean jasaten duen oinazean aurkitzen duela haurrak beldur hori. *Sei urte bete arte, haur barrenkoia naiz, beldurrez eta inkomunikatua bizi dena*. “Quosque tandem...” obran honako hau idazten du: *haurrak garela, beste guztiek bezala, gure existentzia ezerez txiki bat bezala sentitzen dugu, gauzen zirkulu negatibo gisa definitzen gaituena, emozioak, mugak, haren erdigunean, bihotzean, heriotzaren beldurra –goren negazio gisa– antzematen dugu*. Arteak, agian, segurtasun-ezaren eta beldurraren sentimenduetan aurkitzen ditu bere sustraririk berezkoenak. Hori da hain zuzen ere, eskultorearen arabera, edertasun forma batzuen sorburua: *Beldurrak daudelako hartzen dute zenbait animaliak itxura izugarri eta eder hori. Beldurretik sortzen zaizkio paumari bere ehun begi*.

Esperientzia horiek Oteiza txikiari ekarri zioten lehen ondorioa, mundu iragankor eta amorratu baten agerpena izan zen, bai eta haren aurrean defendatzeko premia eta maitagarria dena uzkuratusean eta bakartasunean aurkitzen dela. *Zure egia da ezkututzen dena*, jalgi zuen bat-batean gure



arteko solasaldi luze haietako batean. *Zure baitan lurperatu zara* –jarraitu zuen niri buruz, nahiz eta benetan bere buruaz mintzo zen–. *Bizia lurperaturik dago, hildakoa kanpoan da*. Horrenbestez, besteren presentziari itzuri eginez, haur hura, Alizia Herrialde miragarrian bezala, baitaturiko gune hutsean sartuz joan zen, babes-leku sekretu batean, eta urteak joan urteak etorri haren inguruan moldatuko zuen bere eskultura-lanaren higiarazle izan den ideia. Haurra zelarik, askotan oroitu ohi duenez, hondartzatik hondarra eramaten zuten gurdiek egin zulo txikiez baliatzen zen beraietan lurperatzeko, lur azpiko arren gisa (adituek esandakoa gorabehera, berak dioenez euskaraz *arro*, *ar* errotik datorren hitzak hutsunea, zuloa eta arra esan nahi du batera). Handik, zulo hondo hartan makurturik, zeru urdin argitsua ikusten zuen hondarrak buruaren gainean marrazten zuen zirkuluaren barne. *Ostrukaren antza*, jarraitzen du, *–miragarria eta kalumniatua izan den animalia metafisikoa, burua eta izua hondarrean lurperatuz bere harrespil txikia sortzen duena–*, *harrespilaren eskultoreak zulo bat egiten du zeruan eta bere buru txikiak Jainkoa aurkitzen du*. Eskema horrek iluntasuna eta argia komunikarazten ditu zuzenki, hondoen dagoena gorenarekin, amildegia gailurrearekin, eta espazio jarraituaren, transzendentalaren kontzepziora eramaten gaitu, eta bertan, pintura barrokoetan bezala, zeru-lurrek elkartzen direnean beren leku amankomuna aurkitzen dute.

Alabaina, ezkutaturik gauden hondo horretatik ikusten ahal dugun zeruko zirkulu –zerutar– horrek ez gaitu salbatzen ikusten dugulako, baizik eta ikusten gaituelako; ez da brontzezko suge biblikoa, baizik eta beti-bat beilari dagoen begi ekilatero handia. Eskultoreak, bere burua halakotzat hartuz, eskultura txikiak egiten zituen, *sakeleko harrespilak*, Zarauzko gainean zegoen harrobi batean harturiko hareharri puskak zulatuz. *Zulotik ikusten nuen guztia sakratu bihurtzen zen berehala*. Urte batzuk geroago, neolitos aroko harrespila aurkitu izanak beste esanahi bat ematen dio Oteiza txikiak Orioko hondartzan amesten zuen unibertso sekretu hari. Haren barne-barneko intuizio haiek jatorrizko izu eta ikararen islada balira bezala, historiaurreko harrizko zirkulu txikiak estatuaren muin hutsa eta esperientzia estetiko guztien erlijiozko izaera agertzen dizkio.

Sakontasun-irriek, alabaina, goitasunera eramaten ohi dute. Amildegia erakarpeta eta gailur gorenek pizten dutena ez dira oso desberdinak. “Goranzko bidea eta beheanzkoa bat eta bera da” (Heraklito *B 60*). Norberaren barne-barnean zain dugun guztizko bakardadeak, barne leizearen ilunbean, norberaren ahotsen presentzia besterik ez dagoela, patu jakinera eramaten gaitu maiz, besteren presentziak bakarrik saihesten lagun diezagukeena. Irrikatzen dugun “ni hutsa”, inolako dudarik gabe izaten

errekeritzen duguna (abereen gisa izuaren seinale ezabaezinak markaturik, estigmatizaturik gaudela), kontzientziatik hara, gure barneko urruntasunean begizatzen duguna eta erabateko benazkotasunean beti-bat irauten duen hori, zer ote da jainkoaren begirada ez bada? Agian horregatik deitzen diogu transzendentzia (“trans” eta “scando” hitzetatik) igotzerakoan agertzen den urruntasun moldeari. Oteiza, Voltairek proposatzen duen bide padoxikoari –“igotzeko, gure barnera jaisten gara”– jarraituz, ezkutatu egiten da, *nire arbasoen harrizko frisoan, ... nire baitan, nire aingeruan, nire etsaien eta deabruen eskumenetik kanpo; inork ez nau zauritzen ahal nire aingeruan gordetzen naizelako*, igo ahal izateko. Eskultoreak kontatzen duenez, soldaduzkan zegoela, gauetz koarteleko ohatzetik, *zeru izartua ikusten nuen lehio batetik, eta nire irudipenean laukizuzen hura piztina bat zen, zeruko piztina!, eta hartan murgiltzen nintzen*. Are ipuin bat ere idatzi zuen, gaur zoritxarrez galdua, gai hura erabiliz.

Haur eta gaztaroko esperientzia horiek eta beste askok, esanahi handiagoa biltzen dute eskultore gisa iristen duen konklusio esperimentalaren argitan: berrogeigarren urteetako amaieran artistak erdiesten duen eta bere kutxa irekietan eskaintzen digun estatua hutsa. Zehaztu beharra dago baita *kutxa metafisikoak* deiturikoetan ere, begien bistako xaflak ez duela berez eskultura moldatzen, baizik eta haren lekunea (agian, ustezko interes didaktikoaren izenean, gehiegi esan beharko nuke, alde metalikoan ikusten uste dugun eskultura, benetako eskultura biltzen duena besterik ez dela adieraziz. Batzuetan Oteizak berak erabili ditu horrelako baliabideak). Izan ere, barneko hutsunea da eskultura, “apeiron” delakoa, indefinitua eta ikusezina, xafla euskarri duela bere alderik ahulena babestearren ezkutatzen dena, hala nola eskultorea bere zuloan.

* * *

1935ean Arantxamendi ontzian Ameriketara gindoazela, Balenciagak, zubitik, itsasoari begira pintatzen zuen. Baina ez zituen uhinak pintatzen, Arronako bere baserriko idi parez baizik.

Balenciagaren itsaso hori bere herri-minaren lurralde metafisikoa zen, leku sakratua –inon ez–, non idiek, atzean utzitako lurraldearekiko sentimendua laburbilduz, betierekoan goldatu behar zuten. Eskultoreak murgildu nahi izango zuen zeruko piztina. *Balenciagak*, jarraitzen du Oteizak, *lantzen zuen itsasoa zeruaren ganga zen. Halakoa da historiaurreko pintura. Pintura guztiak zeruan, ortzean eginak dira. Hori da haitzuloak, haitzuloetako pinturetako harrizko hormak, irudikatzen dutena.*

Orain hobeto uler ditzakegu artistaren lanak Oteizarentzat dituen zenbait alderdi. Esan liteke sorkuntza lana babesa dela, ezkutatzea dela, paradoxa bada ere. Gorde egiten da Oteiza bere eskultura hutsetan bere burua agertzen duen neurri berean? Hori ondoriozta liteke haren hitz batzuetatik: *Gorrotu dut arte obra. Artea ez dago eskulturetan, beste nonbait dago. Nire kutxa metafisikoak, elikatu naizen lata hutsak dira.* Eta orri paper hutsa, orbangabea, bertsoak bertan idatziko dituelarik –eta hain sentimendu baketsuak iradokitzen dizkiona–, babesa aurkitzen dueneko harrizko horma ote da? *Poesiak sendatu egiten nau, larrimina kendu eta oreka itzultzen dit. Nire markapausua da poesia.* Biak eta horiek guztiak: hutsunea, isiltasuna... eta irudikatzen dituzten elementuek: harrespila, harrizko horma, paper orria... behin betiko forma aurkitzen dute, mundua eta heriotza sendatzeko gaitasuna zeruko gangaren hutsune handian. Denbora eta arrastaka daramatzen gertakariak, bera moldatzen duten fenomenoen mundua, gure hornidura den eskasia, hedatu egiten dira espazio mugagabe, metafisiko, hutsaren perspektiban, delako espazio hori artea bakarrik ireki?, ezarri? dezakeelarik. “Betierekoa ez dena, ez da erreala” dio Unamunok, Novalis gogoan duela. *Ez dut egon nahi, gaineratzen du Oteizak. Izatean nahi dut nere burua. Izatea ez den eta egotea den gizakia, bere egoeratik ateratzen da arte obra egiten duenean. Gizakiak sortzen duen izatea, izate estetikoak da, jainkoa. Jainkoak gizakia sortu du gizakiak arte obran jainkoa birsor dezan bere antz eta irudira.* Jainkoaren irrikia, iraupen gogoak, betierekotasunaren nahia, hori da Oteizaren eskulturaren huts metafisiko irudikatzen duena. Herodotok dioenez (Hist. I, 131), “pertsiarren ohitura da mendietako gailur garaietaraino igo eta Zeusi sakrifizioak egitea eta zeruko ganga guztiari Zeus esaten diote”. Era berean “urtzi”, ortzea, euskararen lehen hitza da Jainkoa izendatzeko. “Naturan Jainkoa eta Jainkoarengan Natura ikustea” ... “ezin hautsizko moduan”, Goetheren obra guztiaren oinarritzko ideia den horrek, zeru gangan mugaren balioa eta hartaz haraindikoa erdiesten du, infinituaren kalitateak. Gora joatearren, Bat-Ongiaren osotasun gorenean hedatu arte erazten den arimaren nahikundeak, Heraklitoren esaera famatuaren (B26) zentzu transzendentalak agertzen du euskarazko hitz zahar horretan: “gizonak bere buruari pizten dio argi bat gauean, hiltzean bere begia itzaltzen duenean...”. Oteizak euskara bere erroetan berrikusterakoan, izarraren etimologia bat ematen digu, “itz” (izaki) eta “ar” (hutsune) hitzetatik datorrela esanez, eta haren bidez, Heraklitoren antzera, bere ideia justifikatzen du ezen euskal kulturaren, *el hombre se diviniza a sí mismo / NO MORIRA / se cambia de sitio, subirá / se cambia al cielo.* Eskultoreak ideia hori darabil Kiron zentauruaren heriotzari dedikatzen dizkion neurtitz ederrotan:

oh Aquiles hijo
la muerte es para todos
(Y en su noche
acostado
el caballo ya se ha)
en su tumba láctea encendido

Eta berriro *ITZIAR elegía* y otros poemas obran:

*y todas las ventanas encendidas cementerio de estrellas
en el hotel del cielo Dios de fiesta Dios el hotelero*

Joan liteke eskultura haratago, gorago? Nor harrituko da artistak bere azkena aldarrikatu izanaz?

* * *

Ez naiz Naturaren tribukoa. Erbesteratua naiz Naturan, Naturara egotzia.

Beti eta hutsegín gabe Gorapenera, Garaiera doazen nahikunde bertikal guztiak, behar espiritual baten metaforak dira, hartara heriotzaren beldurrak bultzatzen gaituztela. Bizitzarekin hain maiz izan ohi ditugun harreman suminduetatik sortzen diren bi norabideek gure neurri material eta organikoaren sakrifizioa eskatzen dute. Artista natura ezestera daraman bultzada horretatik jaiotzen dira haren iheslari izaera eta Jainkoaren guraria. "Heroismoa jarrera iheslaria da", beldurra bezalakoa (eskultoreak ironia erabili ohi du arriskua saihestu ezin duen jendeak erabili behar duen adoreaz: *Heririk gehienak elbarriak dira. Gure gizon handien artean hobesten ditudanak, S. Inazio, Lope de Aguirre, herrenak dira. Nolako handitasuna espero daiteke herren ez den gizon batengandik? Nik belauna hausten dut behar dudak kemena lortzearren...*). Guztiarekin ere, "ihesaren ideia benetan ez da eroa ez koldarra, idazten du Bataillek. Bilatzen duguna aurkitu nahi dugu, hau da, gure buruarengandik askatzea. Hori da Oteizak bere buruarekiko agertzen duen ezin baretuzko etsaigoaren zioa, bere alde hilkorraren aurkakoa, bere naturaren iragankortasuna eta denborak egunez-egun menderatzen duen horrengatikako aiherkunde bereziki zorrotza:

abandono hombre
os dejo aquí mi corrupción
y esta vez para siempre
de (para una o desde una Metafísica de la Corrupción)

no así el hombre acostado y sucio
no así el hijo puta el hombre
acostado y sucio
de Dios amanece con tos esta mañana

¿desde cuando sabes que el mamífero hombre
es un mamífero mierda?
de murciélago

Existe Dios al Noroeste liburutik ateratako neurtitz horiek kexu eta erresuminaren testigantza dira eta sentimendu horiek Arantzazuko triparik gabeko apostoluetan, errairik gabe, barne hutsekoetan hartzen dute forma. Lehen aipaturiko bultzada autosuntsitzaille haren lehen erreferentzia handia da. Eskultoreak bereziki bortitz nabaritzen duen materiaren eta espirituraren arteko gatazka zaharra, goitik behera irekitako gorputzen sakrifizioarekin burutzen da, gorputz ahurrak beraz, holokaustorako eskaintzen direnak, beren hutsunean irekiak, beren hutsean aiduru. (Haren obran aurkitzen dira hilakintza horren aurrekoak. Agian ez da *Coreano* deiturikoa eta, batez ere, *Regreso de la muerte* ikaragarri hura baino ederragorik. 1950koak biak.

Arantzazuko *Friso de los Apóstoles* izenekoa, historiografia egin nahi izatera, Oteizaren lehen aldia dei genezakeenaren obra gailena da. Alabaina, benetako Apostoluetegia ote da? Zeren eta, ez ote dira hamalau bertan irudikaturiko figurak? Oteiza jostatu egiten da, baietz, Apostoluak direla esatean, aditzen diotenen harrimena sortzen duelarik, bai eta hamalau badira haiei zegokien lekuan gehiago sartzen ez zirelako dela adierazten duenean. Halako ausardia horren modu arinez justifikatzen duenean,



Coreano



Regreso de la muerte


eskultoreak esan nahi digu frisoan berez orotarazten dena, hau da “apostolutasuna”, berez erlijioso den eta berdin zeruari eta lurrari irekia den komunitatearen izaera espiritual hori, ezin dela inolaz ere osatzen dutenen kopuruarekin identifikatu. *Gehiago kabitu izan balitz*, erasten du, *gehiago jarriko nuen*.

Hala eta guztiz, estetikaren ikuspegitik Apostolutegiak adierazten duena, hutsa eskultura-gai gisa sortzearen lehen konklusio bat da, hau da, haztatu, pisatu, neurtu edo moldatzen den materiaren ordezkapen prozesu horren lehen konklusioa, funsgabearen aurrean substantzial deitzen dugun hori espazio hutsaren izaera metafisikoak ordezkaturik gertatuz. Apostoluetan, konklusio hori hutsaz eta husteaz mintzo zaigu, hots, eskulturaren parte materiala kentzeaz, suntsitzeaz geratzen den hutsuneaz. Esan liteke, Migel Angel gogoan dugula, bloke batetik, marmolezko bloke batetik esaterako, sobratzen den materia kentzearen emaitza dela huts hori, eta soberakoa Oteizarentzat materia guztia dela. Ongi gogoratzen naiz bestetan kontaktu dudan eszena batez: Oteiza, hirurogeigarren urteetako hasieran, bere espazio hutsaren ideia azaltzen saiatzen zen zenbait artista gaztek osatu taldearen aurrean: *Begiratu pizgailu hori*, zioen mahai gainean zegoen lehen objekturari seinalatuz. Ongi begiratu gero! Eta orain, gaineratzen zuen esku kolpe batez zegoen tokitik egozten zuelarik, ikusi uzten duen espazioa. Une hartan nabaritu genuen nahasmena eta erantzunetan erabili behar izan genuen fantasia edozein izan zela, Oteizak ahalik eta modu ximple eta zuzenean erakutsi nahi ziguna, zera zen, espazioaren desokupazioa, espazioaren “hustea”. Espazio huts bat lortzeko, beraz, hura betetzen zuen materia desagertaratzeari ekin behar zitzaion. Estatua moldatzen duen huts hori materiaren barrenean dago, Migel Angelek zioenez, ala haren atzean: horra eskultoreak hain gogoko zuen beste zehaztasun bat. Obra zein den kontuan harturik, interpretazio biak onestearen aldeko arrazoiak daude. Arantzazuko apostoluetan barrenean litzateke, argi eta garbi goitik behera irekiak baitira, bere hilkutxatik libratutako espirituaren irudi platonikoaren adierazgarri gisa. Zenbatetan ez ditu Oteizak antzeko irudiak erabili. *Androcanto y sigo*-ko Jonas, *arraina kanpotik eta barnetik ikusi duena*; edo Minotauroren irudi fantastikoa, bere Labirintuan itxia: *baina Labirintua Minotauro bera da. Haren barrenean dago. Labirintutik ihes egitea hartua gauzkan piztiatik irtetea da*; baita eskultoreak gorapatzen duen Savonarolarena: *Savonarola erretzen duen garra ez da kondenatzen duten su horrena, baizik eta bere su propioa. Barrenean daraman sua*.

Baina baita atzean den espazioa, materiaren atzean ezkutuan dagoena. Prozesuaren interpretazio hau artistaren aldi esperimentaletan kokatu beharra dago, abstraktuenetan eta agian ondokoetan ere. Orduan, arazoa grinarik

gabe hartzen da. 1956an Oteizak *Maquetas en vidrio para el estudio de la pared luz* direlakoak ikerketarako erabili ondoren, hormaren alde iluna, itxia, aurrean dagoena dela ondorioztatzen du, eta alde irekia, argia, atzean dagoena, aurrekoak estalia dena. Halako moldez non, artistak lortu nahi duen eskultura aske edo askatua iristeko, zulatu, zeharkatu eta aurreneko iluntasun-dudarik gabe, materia irudikatzen duena-horretatik hara joan beharra dagoen. "Hadesen ez dago argirik. Arimak aberetu egiten dira, usnatu egiten dute", iragartzen du olerkariak. Ilunbea zeharkatu beharko dugu urrutikoa irekitzeko. Hainbat pintura erromantikotan bezala, hurbilen dagoenak itzalpean jarraitzen du. "Izu-giroa lehen planoan da bakarrik, idazten du Jaspersek. Bilaketa zorrotza egin behar da sakonena lortzeko. Aurkitu ahal izateko, izu hori zeharkatu beharra dago". Oteizaren eskultura, urrutikoaren bilaketa horren parte da, iritsi ezinezko substantziaren bila burutzen den bidaia argonautikoaren parte. *Bizitzeko urrutira esaten dut hitza*, idazten du eskultoreak Itziarrenganako maitasun neurtitzetan. Urrutikoaren, urrutienekoaren metafora espazial horretan jatorrien mitoa berpizten da berriro.

Zergatik jarri, galde lezake norbaitek, horren arreta berezia hutsaren genesiaren gai honetan. Ez bakarrik aurrez-aurreko bi exegesi azaltzen dituen auzi eztabaidatua delako, baizik eta, nire ustetan, arazo hau egokiro ebatzi ez izatera, denboraren buruan Oteizaren obra eta teoria moldatu duen sistema osoa, eskultorea inarrostean duten pasioen sare korapilatsuaren agergarri dena, ulergaitza izango litzatekeelako. Hutsaren genealogiari buruzko eztabaida modu honetara planteatu liteke: estatua hutsa materiaren desokupazio prozesuaren, gorputza husteko prozesuaren emaitza da, hots, sakrifizio molde bat, gorago artistaren aldi adierazkorra aipatu



Maquetas en vidrio para el estudio de la pared luz

